

## DIRUBILKETA IRAGARKIA

Iragarki hau dela medio jakinarazten da 2.010.urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zergari dagokion Errolda jendaurrean ikusgai dagoela, uztailearen 5eko 11/1.989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzeari buruzkoa, 14.artikuluko 1. zenbakian xedatutakoa betez, hurrengo arauari jarraiki:

- a) Ikusgai dagoen lekua: Errenta eta Exakzio Bulegoan.
- b) Aztertzeko epea: Hilabete, datatik-datara, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta.
- c) Desadostasuna adierazteko epea: hilabetekoa, b) atalean adierazten den moduan, birjарen errekurtsua tarteratuz.
- d) Errekurritzen zaion organoa: Gobernu Batzordea.
- e) Erreklamazioak aurkezteko tokia: Udaleko Sarrera Erregistroa, bulego orduetan.
- f) Errekurtsua jartzearen eraginak: Aipaturiko Foru Arauaren 14.artikuluko 2.zenbakian xedatutakoak.

Deba , 2.010eko otsailak 11a.-Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia alkatea

### EDIKTUA

2.010eko martxoaren 1etik apirilaren 9 arteko epealdian Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zergari dagokion erreziboen borondatezko ordainaldia izango dela jakinarazten da.

Aurtengo otsailaren 10 baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontu korrontetik kobratuko dira zuzenean, 2010ko apirilaren 6an.

Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira uztailean zehar. Ordainketa entitate laguntzaileen bidez (banku, aurrezki kutxa , kreditu kooperativa eta Dirubilketako bulegoan) egin beharko da, eta horretarako ordainagiria aurkeztu beharko da.

Martxoaren 20a iritsi eta zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, hurrengo bulego hauetako edozeinetan eskatu beharko du Debako Zerga Bulegoa : Portu zb 1

Borondatezko kobrantza epealdia amaitu eta zergadunek zorrak ordaindu ez badituzte, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituiko dira, eta epe exekutiboko errekarguak, berandutza interesak eta, hala badagokio, kostuak sortuko dira.

Errezibo hauek borondatezko epean ordaindu ahal izango dira Udaletxeak beheko solairuan duen Idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, 9,etatik 13,30etara.

Edozein argibiderako, dei 943.60.80.39 telefonora, hau da, Udal Dirubilketa Zerbitzura.

Deba ,2.010eko otsailak 11a.- Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia alkatea